

Aisia Inklusiboaren aldeko Adierazpena 2019

Aisia eta Desgaitasunen
katedraren XXV. Urteurrena




Deusto

Cátedra Ocio y Discapacidad
Aisia eta Ezgaitasunen katedra




Irakurketa Erraza



Aisia Inklusiboaren aldeko Adierazpena 2019

2019
Deustuko Unibertsitatea
Bilbo

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak
1 posta-kutxa - 48080 Bilbao
Posta elektronikoa: publicaciones@deusto.es
ISBN: 978-84-1325-066-3



Adierazpen hau: zergatik egiten dugu?

2003an, Desgaitasuna duten Pertsonen Europako Urtean, lehen aldiz idatzi zen, aisia **inklusiboaren** aldeko **adierazpen** bat.

2014an, adierazpena berrikusi zen. Aisialdiko eta desgaitasuneko profesionalek parte hartu zuten.


Aurten 2019an, Deustuko Unibertsitateko Aisia eta Desgaitasuna Katedrak 25 urte betetzen ditu eta eguneratutako adierazpen berria aurkezten dugu.

Adierazpen honekin aldarrikatu nahi dugu aisia pertsonen esperientzia eta eskubidea izan behar dela. Baita ere esaten dugu erakunde publikoek bermatu behar dituztela herritar guztien parte hartzea eta aisialdirako aukeren berdintasuna.

Inklusiboa: edozein pertsona integratzen duena edo integra dezakeena komunitatearen bizitzan gainerako pertsonekin batera, pertsonaren jatorria, lanbidea, egoera ekonomikoa edo pentsamendua edozein dela ere.

Desgaitasuna duen pertsona batek besteen jarduera berberetan parte har dezake, behar dituen laguntzekin. Hori da **aisia inklusiboa**.


Adierazpena: pertsona talde batek argitaratzen duen idazkia da ideia politiko, erlijioso, filosofiko edo beste motakoekin. Eskubideak aldarrikatu ohi dira.



Aisia: zer da?


Aisia da denbora librea,
gure bizitzako zati hori, lanetik kanpo,
pertsonak ondo pasatzeko, gustatzen zaizkigun gauzak
eta ondo sentiarazten gaituztenak egiteko erabiltzen duguna.

Aisia gisa ulertzen dugu:

- **Giza eta gizarte esperientzia:**
jarduerak eginez pertsona garatzea ahalbidetzen duena.
- **Funtsezko eskubide unibertsala:**
inori inolako arrazoirengatik
ezin zaio ukatu aisialdirako eskubidea.
- **Aisia humanista:**
pertsonak ahalduntzea baimentzen du,
hau da, askatasunez aukeratutako bizipenak bizitzea,
gaitasunak garatzeko;
eta komunitateak ere ahalduntzen ditu,
parte-hartzearen, gizarte kohesioaren... bidez
Denen artean sortu eta parte hartzea da kontua. ... 
- **Proiektuak, programak, produktuak eta zerbitzuak**
hauekin erlazionatuak: kultura, turismoa, kirola,
aisialdia (tabernetara, jatetxeetara, diskoteketara... joatea)

- **Bizi kalitate eta ongizate psikosoziala:** pertsona guztien beharrak asetu behar ditu eta bazterketarik eta diskriminaziorik gabe egin ahal izatea.
- **Onuragarria eta guztiontzat aldaketa positiboak eragiten dituena:** pertsonak, haien familiak, gizartea.





Aisia inklusiboa: zein dira elementu garrantzitsuenak?



✓ Ingurunea

Pertsona guztiek parte hartu eta baldintza berdinetan eta autonomiarekin erlazioa daitezkeen tokia izan behar da. Aisialdiko politika, proiektu eta programek kontuan hartu behar dituzte diseinua, irisgarritasuna eta hori posible egiten duten laguntzak.



✓ Sentitzeko modua

Dibertsitatea, desberdintasuna balio bat bezala ikusi behar da errespetutik, tolerantziatik eta enpatiatik. Gizarteari zuzendutako kontzientiazio kanpainak erakutsi behar dute desgaitasuna duten pertsonen irudi positiboa eta anitza.



✓ Pentsatzeko modua

Behatu eta besteen ideiak eta iritziak kontuan hartzea. Desgaitasuna duten pertsonak kontuan hartzea proiektuak diseinatu, abian jarri eta ebaluatzeko orduan.



✓ **Egiteko modua**

Aisialdiko eskaintza irisgarri batek pertsona guztiei on egiten die. Planifikatzen eta sortzen lan egin behar da oztopo fisiko, komunikazioko, sozial eta kognitiborik gabe.



✓ **Kultura inklusiboa**

Oztopo fisikorik eta komunikazioko oztoporik gabeko artera, ondare eta kultura ondasunetara, ikuskizunetara... sarrera.

✓ **Turismo inklusiboa**

Oztoporik gabeko sarrera espazio eta helmuga turistikotara, gai desberdinei buruzko jardueretara...



✓ **Jarduera fisikoak eta kirol inklusiboak**

Oztoporik gabeko sarrera kirol espazio eta jardueretara, programa eta probetara parte hartzaile gisa eta ikusle gisa.



✓ **Dibertsio inklusiboak**

Oztoporik gabeko sarrera hiriguneetan, espazio publikoetan, etxebizitzetan... Taberna, jatetxe, gaueko aisialdirako lokalez gozatzeko, aukera berdinekin eta diskriminaziorik gabe.



✓ **Teknologia inklusiboa**

Teknologia berriak oso lagungarriak izan daitezke desgaitasuna duten pertsonentzat. Baina ezagutu eta erabili ahal izateko behar eta gaitasun guztietarako irisgarriak izan behar dira.



✓ **Aisialdiko profesionalen formakuntza**


edegaitasuna duten pertsonen aniztasuna eta beharrak eta nola erantzun behar zaien ezagutzeko. Baita ere garrantzitsua da kode etiko bat, jokabide-kode bat, aisialdiaren sektorearen barruan.



✓ **Aisialdiko profesionalak izateko sarrera**

Desgaitasun duten pertsonak formakuntza eta trebakuntza jaso ahal izatea arlo profesional horretan lan egin ahal izateko.

✓ **Erreferentzia, laguntza eta aholkularitza zentroak sortzea** aisia inklusiboari buruzkoak.



Desgaitasuna duten pertsonak eta aisia: premia orokorrak

Antza denez, munduan biztanleen 100etik 11k desgaitasunen bat du. Desgaitasunaren mundua zabala eta anitza da, pertsonaren egoeraren, adinaren edo ezaugarrien arabera. Desgaitasunak zerikusia du pertsonen eta ingurunearen artean ematen den harremanarekin, oztopoak dituen ala ez, **baldintza berdinetan parte hartu ahal izateko.**

Desgaitasun duten pertsonak berdina dira **eskubide eta betebeharretan** eta, beraz, aisialdirako eskubidea dute, gainerakoek bezala.

Aisia bizitzako aro guztietan gozatu ahal izan behar da.

- **Haurtzarotik**, komunitateko inguruneetan adibidez, parke, plaza, kiroldegi, museoak eta hezkuntza inguruneetan, laguntzak eskainiz premia bereziak dituzten ikasleei patioan, irteeretan, eskolaz kanpoko jardueretan...
- **Adinekoentzat**, bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetuko dituzten aisialdiko bizipenak sustatzen.

Desgaitasuna duten emakumeek diskriminazio bikoitza jasaten dute. Hauen egoera agerikoa egin behar da eta kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko orduan.

Pertsonaren **autodeterminazioa** garrantzitsua da eskubideen erabileran.

Kasu honetan, protagonista izatea eta bere aisialdiari buruz erabakitzea.

Desgaitasun elkarteak arduratzen dira eskubidea babestu eta bermatzeaz eta kolektiboa ordezkatzear.


Elkarteek beren aisialdiko zerbitzu zehatzak eskaintzea funtsezkoa da oraindik ere.

Baina desgaitasuna duten pertsonen erraztasunak eman behar dizkiete komunitatearen aisialdiko programetan eta zerbitzuetan parte hartzeko lehen aukera gisa.



Gizarteratzeko bide hori egin behar da erakundeen eta zerbitzu horien artean sarean lan eginez.




Laguntza beharrak ezberdinak izan daitezke:




- **Irisgarritasun fisikoa:** sarreran, irteeran, espazioetan mugitzeko...
- **Zentzumen-irisgarritasuna:** ukimenezko eta soinu-seinaleak, braillea, audio deskripzioa...
- **Irisgarritasuna kognitiboa eta zentzumenezkoa:** irakurketa erraza, piktogramak...
- **Irisgarritasun soziala:** interpreteak, laguntzaile pertsonalak, premien araberrako erritmoak eta denborak...



Desgaitasuna duten pertsonak eta aisia: premia zehatzak


	Inklusio fisikoa	Inklusio komunikatiboa	Inklusio soziala
Itsuak edo ikusmen desgaitasuna dutenak 	Oztoporik gabeko sarrera eta espazioak	Ukimen eta soinu seinaleztapena	Kasu batzuetan
Adimen desgaitasuna 	Kasu batzuetan	Kasu batzuetan	Egokitzapenak (irakurketa erraza), laguntza eta baliabide gehigarriak oztopo pertsonalak eta sozialak murrizteko

	Inklusio fisikoa	Inklusio komunikatiboa	Inklusio soziala
Desgaitasun fisikoa 	Iritsi, sartu edo irten, espazioetan autonomiaz mugitzea	Kasu batzuetan	Kasu batzuetan
Desgaitasun anitzak 	Premia konplexuak Trebatutako profesionalak mota askotako laguntzak emateko		
Gaixotasun mental kronikoa 	Kasu batzuetan	Kasu batzuetan	Egokitzapenak, laguntza eta baliabide gehigarriak. Langile laguntzaileak

	Inklusio fisikoa	Inklusio komunikatiboa	Inklusio soziala
Garun paralisia 	<p>Oztopo arkitektonikoak ezabatzea eta laguntza teknikoak</p>		<p>Komunikazio sistema alternatiboak (ikurrak eta sinboloak). Erantzute denbora egokitzea. Langile laguntzaile gehiago</p>
Langile laguntzaile gehiago 			<p>Irisgarritasun kognitiborako laguntzak. Oztopo sozialak murriztu (inguruak ez baitu ezagutzen beren errealitatea)</p>
Gorrek edo entzumen desgaitasuna 		<p>Ikusmen seinaleztapena eta informatiboa. Interpreteak eta baliabide teknikoak (begizta magnetikoak, fm igorgailuak, azpigituluak)</p>	<p>Kasu batzuetan</p>

Adierazpen honek balio behar du aisialdiko profesionalentzat eta erakundeentzat lanerako bide gisa hartzeko:

- Desgaitasuna duten pertsonen inguruan dauden ideiak eguneratzeko.
- Aisiak pertsonen ongizatean eta bizi kalitatean laguntzen duela ikusarazteko.
- Aisialdi inklusibuari buruzko legeak eta arauak egotea eskatzeko espazio, ekipamendu, programa, zerbitzu eta jardueretan.





Colabora:



Obra Social "la Caixa"



COMITE ESPAÑOL
DE REPRESENTANTES
DE PERSONAS
CON DISCAPACIDAD

